

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA



Burujabetza ez da euskal herritarren artean aldarrikapen edo asmo berria, eta euskal nazioaren izaerari ez ezik, aldarrikapen zahar eta berri hori euskal lurraldeetan bizi diren herritarren ongizatea bermatzeko eta garatzeko borondateari ere lotuta dago. Historian euskal lurraldeetako biztanleek osatutako komunitatea behin eta berriz bere burua politikoki eratzen eta gobernatzen saiatu da, euskal herritarren bizi baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko asmoz.

Nekez egongo da Herri honetan aldaketa politiko edo sozialik, herri hau burujabea izan ezan. Gaur egun gizarte gisa ditugun erronkak -politikoak, ekonomikoak, sozialak- alde batean, eta haiei aurre egiteko dauzkagun baliabideak bestean, euskal herritarroi desoreka gero eta handiagoa suertatzen zaigu. Horregatik, Gernikako autonomia estatutuaren fasea agortutzat emanez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek estatus politiko berria behar dutela aldarrikatzen dugu: burujabetza osoa bilduko duen estatus politikoak, hain zuzen ere, euskal herritar guztien ongizatea bermatu ahal izateko bide bakarra delako.

EGOERA

Bere buruaren etorkizunari buruz erabaki dezakeen herria da burujabea, beraz, erabakitze eskubidean oinarritzen da burujabetza.

Nazioarteko zuzenbidean eskubide hau gorputz hartzen dijoan arren (Quebec, Kosovo, Eskozia) Espainiaren jarrera guztiz oztopatzailea ari da izaten, eta are gehiago, erabakitze eskubidea





ez onartzeaz gain, helburu berzentralizatzailea ari da nagusitzen azken urteotan, eskubidez dagozkigun eta legez jada onartuak dauden eskumenak edukiz hustuz. Espainiako estatuak bizi duen krisi politikoak, paralisia eragin du bizitza politikoan. Paralisi horretan kateatuta dago EAE ere, herritarren beharrei, arazoei behar bezala aurre egin ezinik.

HELBURUA

Erabakitze eskubidea, barne eta kanpo erlazioak finkatzeko bai, baina baita baliabide propioak kudeatu eta gizarte eredia eraikitze izan behar da. Erabakitze eskubidea ez da une konkretu eta isolatu batetara bideratutako eskubidea, baizik eta bizitzan zehar eta egunerokotasunean present izan behar duguna. Erabakitzea dago demokraziaren oinarrian, eta beraz, erabakitze eskubidea eskubide demokratiko bat da. Herritarren borondate demokratikoa da burujabetza bideratzeko behar den zilegitasuna, abiapuntu eta muga bakarra.

Gure iritziz, hurrengo legealdian Legebiltzarrean ordezkari izan dezaketen talde politikoei ez ezik, sindikatu eta gizarte eragileei ere eztabaidan parte hartzeko aukera zabaldu behar zaie. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek beraien burua hasiera-hasieratik prozesu horren partaide aktibo sentitu behar dute, eta ideia horri jarraiki, behin ibilbide-orria adostu ondoren, herritarren berrespena jaso dezan herri kontsulta egingo da. Egun ez dugu herritarren nahari bide emateko bide araubiderik, beraz, hori izango da lehen tasun nagusia. Indarrean diren marko politikoak erreformatzeko herri akordio zabalak lortzeaz ari gara. Erreforma horiek izango lirateke gure burujabetza nazionala berreskuratzeko bide-orriaren abiapuntua.

NEURRIAK

-  Itun Politiko eta Sozial berria, gehiengo politiko, sozial eta sindikalak sinatua, herritarren burujabetzarako bide-orria martxan jartzeko.
-  Estatus Politiko Berri baterako proposamena, Euskal Herriaren nazio errekonozimendua barnebilduko duena, eta erabakitze eskubidearen egikaritzea.
-  Estatus Politiko Berriaren proposamena berresteko kontsulta herritar betearazlea.
-  Espainiar estatuaren erantzunarekiko independente, euskal herritarrek demokratikoki Estatus Politiko Berriaren gainean kontsulta betearazle horretan erabakitakoa martxan jarri eta betetzeko konpromisoa.